

PRAKTIKETAKO ISTRIPU BIOLOGIKOAREN PROTOKOLOA

- 1. URRATSA: Berehala** jakinarazi behar zaie instruktoreari, irakasle tutoreari, irakasgaiko arduradunari eta Kanpoko Praktiken dekanordeari.
- 2. URRATSA:** Iturriari (pazientea/erabiltzailea) informazioa eman, haren baimena jaso eta odola ateratzea ondoren aztertzeke (ziztadaren iturriaren datuak behar dira: izena, bi abizen, historia-zenbakia/IKZ).
- 3. URRATSA:** Behean adierazitako erreferentzia-zentrora joatea.

ESI Donostialdeko Practicumeko ikasleak
Donostia Ospitalean edota osasun zentroetan pasa bada: Lan Osasuna, Donostiako Unibertsitate Ospitaleko Ama-Haurren eraikineko 1. solairu berdean.
Itxita balego, Donostia Ospitaleko Larrialdi Zerbitzura joan.
Debagoieneko ESIko Practicumeko ikasleak
Debagoieneko Ospitalea edota osasun zentroetan pasa bada: Debagoieneko ESIko Lan Osasuna
Itxita balego, Arrasateko Ospitaleko Larrialdi Zerbitzura joan.
Debabarreneko ESIko Practicumeko ikasleak
Mendaroko Ospitalea: Prebentzioko Oinarrizko Unitatea (POU). Mendaroko Ospitaleko behe solairua (ekitaldi areto ondoan). Tel.: 943-837856
Lehen Mailako Arretako Zentroak: Lehen Mailako Arretako Unitateko arduraduna (gainbegiralea/Lehen Mailako Atentzioko Unitateko arduraduna)
Itxita balego, Mendaroko Ospitaleko Larrialdi Zerbitzura joan.
BIDASOA ESIko Practicumeko ikasleak
Bidasoako Ospitalea: Prebentzioko Oinarrizko Unitatea (POU), bestela Bidasoako Ospitaleko Larrialdi Zerbitzura
Lehen Mailako Arretako Zentroak: Prebentzioko Oinarrizko Unitatea (POU), bestela Bidasoako Ospitaleko Larrialdi Zerbitzura
Itxita balego, Bidasoako Ospitaleko Larrialdi Zerbitzura joan.
Goierri-Urola Garaiko ESIko Practicumeko ikasleak
Zumarragako Ospitalea: Prebentzioko Oinarrizko Unitatea (POU), bestela Larrialdi Zerbitzura
Lehen Mailako Arretako Zentroak: Prebentzioko Oinarrizko Unitatea (POU), bestela Larrialdi Zerbitzura
Itxita balego, Zumarragako Ospitaleko Larrialdi Zerbitzura joan.
Tolosaldea ESIko Practicumeko ikasleak
Asunción Klinika: Kontrolak Asunción Klinikaren egin, gorabeheraren berri eman ESI Donostialdeko POUri jarraipena egiteko
Lehen Mailako Arretako Zentroak: Kontrolak praktikak egiten ari diren Osasun Zentroan egin, gorabeheraren berri eman ESI Donostialdeko POUri jarraipena egiteko

Beste osasun-zentro batzuetako gainerako ikasleak harremanetan jarri beharko dira Osakidetzako Prebentzio Zerbitzu Orokorrearekin (945006027), eta horiek ikasleak koordinatu eta orientatuko dituzte. Ez badaude, praktiketako lanpostutik hurbilen dagoen Osakidetzako Larrialdi Zerbitzura joan beharko dute (ikasleek iturriaren Osakidetzaren baimena firmatuta eta iturriaren odol-lagina eraman beharko dute Osakidetzako Larrialdi Zerbitzuan azter dezaten).

- 4. URRATSA:** Jarri harremanetan Fakultateko Idazkaritzarekin (943017310) istripuaren datuak erregistratzeko eta **Asistentzia Parte**a osatzeko. Jakinarazi istripua Mutua-ri (900506070).
- 5. URRATSA:** Kanpoko Praktiketako dekanordearekin tutoretza bat hitzartu.

ESKOLA-ORDUETAN EDO BIDEAN, PRAKTIKETAN IZANDAKO ISTRIPU EZ BIOLOGIKOAREN PROTOKOLOA

- 1. URRATSA:** Instruktoeari, irakasle tutoreari, irakasgaiko arduradunari eta Kanpoko Praktiketako dekanordeari jakinaraztea.
- 2. URRATSA:** Azterketa sakon bat egiteko unean eta/edo osasun-zentro batera eramateko unean praktikekin jarraitzeko aukera baloratu beharko da (joan beharreko zentroa praktiketako zentrotik gertuen dagoena izango litzateke).
- 3. URRATSA:** Jarri harremanetan Fakultateko Idazkaritzarekin (943017310) istripuaren datuak erregistratzeko eta **Asistentzia Partea** osatzeko. Jakinarazi istripua Mutuaia-ri (900506070).
- 4. URRATSA:** Kanpoko Praktiketako dekanordearekin tutoretza bat hitzartu.